



EZTABAIDA JARDUNALDIA: ETIKA ETA DEONTOLOGIA GIZARTE HEZKUNTZAN

DEONTOLOGIA BATZORDEA: HAUSNARKETA ETIKORAKO TRESNA.

Antolatzaileak: Bilboko Irakasleen Eskola eta Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko Etika eta Deontologia Batzordea



❖ Testuingurua

Zergatik antolatu dugu Deontologia Batzordeek Gizarte Hezkuntzan daukaten garrantziari buruzko hausnarketa-jardunaldi bat?

Hainbat arrazoi daude era horretako jarduera bat antolatzeko, baina nagusia da, zalantzarik gabe, hezitzaileek, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeetan zeregin etiko profesional zehatz batzuk bete behar dituztela. Etika deontologikoen garrantzia azpimarratzeak hezitzaileak lan egiten duten pertsonekin hartu dituzten konpromiso eta erantzukizunekin engaiatzen ditu. Erantzukizun eta konpromiso profesional horiek direla eta, hezitzaileek ezinbestekoa dute etengabe elkarrekin hitz egitea, giza eskubideak eta gizarte- eta hezkuntza-jardueren subjektuak errespetatzeko printzipio deontologikoak betetze aldera.

Egia esan, arrazoi hori nahikoa litzateke hausnarketa etikoaren inguruko topaketa bat antolatzeko, zeina, elkargokide diren profesionalentzat ez ezik, Gizarte Hezkuntzako ikasle eta irakasleentzat ere interesgarria baden. Baina beste zio batzuk ere badaude.

Gizarte Hezitzaileen Elkargo Profesionalen Kontseiluak Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargo Profesionaleko Etika eta Deontologia Batzordeari agindu zion estatuko gainerako elkargo profesionaletan Deontologia Batzordeak sortzea sustatzeko eta motibatuzeko prozesuaren aitzindari izatea; baita batzordeak dauden elkargoetan batzorde horiek mantentzeko eta hazteko elkarrekin lan egitea ere.

Agindu hori 2012an Valentzian egindako Gizarte Hezkuntzako 6. Biltzarraren ondoren eman zuen Kontseiluak eta, ordudanik, interesa duten profesionalekin harremanetan egon gara, bai batzorde horietako kide direnekin, bai Biltzarrak antolatu zuen bileran parte hartu zutenekin.



Horrela, jakin dugu, batetik, Aragoi, Balearretan, Valentziako erkidegoan eta Gaztela-Mantxan badituztela Deontologia Batzordeak; eta bestetik, Nafarroa, Gaztela eta Leon, Andaluzia, Galizia, Katalunia eta Murtzian batzordeak sortzea interesatzen zaiela edo sortzen ari direla. Gainerako elkargoei dagokienez, interesa duten pertsona batzuk daudela baino ez dakigu.

Azken urtean, gure Etika eta Deontologia Batzordean gainerako Deontologia Batzordeetako koordinatzaileekin biltzeko topaketa bat antolatzeko aukera aztertu dugu. Zertarako? Elkargo profesionaleri Deontologia Batzordeak sortzen laguntzeko. Izan ere, elkargoek batzorde bat edukitzeko erantzukizun legal eta juridikoa dute eta, horrez gain, batzordea ezinbestekoa da gizarte- eta hezkuntza-lan profesionala egiteko, hau da, gizarte hezitzaileek helburu dituzten pertsona eta kolektiboen mesedetan egoki eta arduraz lan egiteko.

Horren harian, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko Deontologia Batzordearen iritziz, Elkargoen Kontseilu Nagusiak ere Etika Batzorde bat eduki beharko luke, gainerako elkargoei Deontologia Batzordeak sortzen eta abian jartzen laguntzeko.

Zalantzarik gabe, profesional, ikasle eta irakasleen topaketak ikaskuntza-erronka handiak dira, eztabaida-taldeetan ekarpen oso interesgarriak egiten direlako. Gainera, gatazka etikoez hausnartzea aberasgarria izaten da beti, teoria eta praktika, iguripen eta errealitate profesionalak, eta abantaila eta zailtasunak alderatzeko aukera izaten delako. Hausnartzeak, gainera, topaketan proposatutako helburuak lortzen lagunduko digu.

❖ Helburuak

1. Gizarte Hezkuntzan etika deontologikoak daukan garrantzia aztertzea eta eztabaidatzea, profesionalekin eta unibertsitateko ikasle eta irakasleekin.
2. Estatuko Gizarte Hezkuntzako Elkargo Profesionalen errealitateari buruzko informazioa analizatzea.
3. Deontologia Batzorde aktiboak sustatzeak daukan balioaz hausnartzea.
4. Estatuan Deontologia Batzordeak sortzeko prozesua martxan jartzeko gaitasunak, zailtasunak eta aukerak zehaztea.
5. Elkargo profesionaleri babes etikoa eskaintzeko eta elkargoen artean sare bat sortzeko komunikazio-plan bat egitea.

❖ Programa

9:00 **Partaideei harrera egitea.**

9:30 **Jardunaldiaren aurkezpena.** Gizarte Hezkuntzako Elkargo Profesionaleko koordinatzailea, Bilboko Irakasleen Eskolako zuzendaria.

9:30 **Hitzaldia.** "Zergatik dira garrantzitsuak Gizarte Hezkuntzako Elkargo Profesionaleko Deontologia Batzordeak?" Iñaki Rodríguez, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargo Profesionaleko Deontologia Batzordeko burua; eta Maria Jose Alonso Olea, UPV/EHUko Gizarte Hezkuntzako irakaslea eta Batzordeko kidea.

10:30 **Eztabaida.**

11:00 **Kafea, atsedena dia.**

11:30 **Lan-taldeak.** Koordinatzailea: Maite Arandia Loroño (Bilboko Irakasleen Eskolako Gizarte Hezkuntzako titulazioko koordinatzailea eta Batzordeko kidea):

- "Zer aukera eta zer zailtasun daude batzordeak sortzeko eta/edo mantentzeko prozesuak martxan jartzeko?"
- "Zerk erraztuko luke Deontologia Batzordeak sortzea eta/edo mantentzea?"
- "Nola zehaztu komunikazio-plana?"

14:00 **Bazkaria.**

16:00 **Ondorioak.** Koordinatzailea: Israel Alonso, UPV/EHUko irakaslea.

17:00 **Nola gauzatu ondorioak?** Daniel Rubio (Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargo Profesionaleko Deontologia Batzordeko kidea).

18:00 **Jardunaldiaren amaiera.**



Topaketari buruzko beste datu batzuk

Eguna: ostirala, 2015eko otsailak 27.

Hartzaileak:

- Estatuko Elkargo Profesionaletako Deontologia Batzordeetako ordezkariek.
- Gizarte Hezkuntzako ikasleak.
- Gizarte Hezkuntzako irakasleak.
- Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargo Profesionaleko elkargokideak.

Tokia: Pio Baroja entzunaretoa. Abandoibarrako eraikina. UPV/EHU.

LAGUNTZAILEA: Gizarte Hezitzaileen Kontseilu Nagusia.



INFORMAZIOA:

GIZARTE HEZITZAILEEN EUSKADIKO ELKARGOA - COLEGIO DE EDUCADORAS Y EDUCADORES DEL PAÍS VASCO

Bailen kalea 1, 3. solairua (7. atea) 48003 – Bilbo ❖ Telf.: 94 416 03 97 ❖ e-maila: ceespv@ceespv.org ❖ www.ceespv.org